



ZubiGune

f u n d a z i o a

MEMORIA ANUAL

2018

URTEKO MEMORIA





4.0 Gunea / Espacio 4.0

05



## PÁGINA 07 ORRIA

**LEHENDAKARIAREN AGURRA**  
Saludo del presidente

## PÁGINA 08 ORRIA

**01 · TREBAKUNTZAKO EKINTZAK**  
Acciones formativas

· Igogailuak instalatzea eta mantentzea <i>Instalación y mantenimiento de ascensores</i> .....	10
· Fabrikazio mekanikoko operazio osagarriak <i>Operaciones auxiliares de fabricación mecánica</i> .....	12
· Administrazio-zerbitzuetako eta zerbitzu orokoretako eragiketa osagarriak <i>Operaciones auxiliares de servicios administrativos y generales</i> ..	14
· Etengabeko trebakuntza <i>Formación continua</i> .....	16
· Eskariaren araberako ikastaroak <i>Cursos a demanda</i> .....	20



## PÁGINA 22 ORRIA

### 02 · PROIEKTUAK Proyectos

· Txilerako teknikariak <i>Técnicos para Chile</i> .....	24
· Capacitación sin fronteras <i>Capacitación sin fronteras</i> .....	28
· Tecnun summer school on photovoltaic systems <i>Tecnun summer school on photovoltaic systems</i> .....	30
· Migrants Take Care - Erasmus + <i>Migrants Take Care - Erasmus +</i> .....	32
· Energyducation <i>Energyducation</i> .....	34
· GFAko, etorkizuna eraikiz programako GIGET proiektua <i>GIGET - Programa etorkizuna eraikiz de la DFG</i> .....	36
· Zubilan .....	38
· Eskaintza dibulgatzalea eta trebakuntza-eskaintza, energia-eraginkortasunean eta energia <i>Oferta divulgativa y formativa en eficiencia energética y energías renovables</i> .....	40
· CENIFERekin lankidetza <i>Colaboración con CENIFER</i> .....	44

## PÁGINA 46 ORRIA

### 04 · GOBERNU-ORGANOAK Órganos de gobierno



# LEHENDAKARIAREN AGURRA

## Saludo del Presidente



Zubigune Fundazioaren 2018ko jardueren memoria aurkezteragoaz. Gaur egungo Zuzendaritza-taldearen hirugarren urte honetan antolatutako prestakuntza-ekintzak eta parte hartu dugun proiektuak jaso ditugu memorian.

Prestakuntzaren alorrean lan interesgarria egiten jarraitzen dugu, ikastaro-ordu, eskola-ordu eta ikasle gehiagorekin. Hazten jarraitzen dugu enpresek eskatutako ikastaro kopuruari dagokionez eta, hori guztia, gainera, ikasleen balorazio onarekin.

Proiekturei dagokienez, Txilerako Teknikarien proiektuarekin jarraitzen dugula nabarmendu behar dugu; Tknikarekin batera, ikasleentzako hainbat ikastaro eta irakasleentzako beste bat eskaini ditugu. Gainera, Mugarik Gabeko Gaikuntza (Capacitacion Sin Fronteras) proiektuaren Euskadiko lehen edizioa kudeatu dugu, Guanajuatoko (Mexiko) ikasleekin.

GIGET proietuan ere egin dugu lan (Gipuzkoako Foru Aldundia-ren Etorkizuna Eraikiz programaren barruan), eta CENIFER zentroarekin, Energia Berritzgarriekin eta Energia-eraginkortasunarekin lotutako hainbat prestakuntza-ekintza garatzen.

Iaz hasitako lanaren ondorioz, berritasun garrantzitsu bat da Europako bi proietutan parte hartu dugula, horietako batean lider lanetan, eta beste batean bazkide modura, Usurbilgo Lanbide Eskolaren gidaritzapean.

38 lagun kontratatu ditugu urtean zehar, Zubigune sortu zenetik kontratu kopuru handiena; emaitza ekonomiko positiboekin batera, baikor egoteko arrazoia ematen digun datua hori da.

Amaitzeko, eskerrak eman behar dizkiet beren lanarekin jarduera horiek guztiak antolatzea eta ondo funtzionatzea ahalbidetzen duten pertsona guztiei.

Presentamos la memoria de actividades de la Fundación Zubigune correspondiente a 2018. En ella se recogen las acciones formativas y los proyectos en los que hemos participado en este tercer año de la actual Dirección.

Seguimos aportando una labor interesante en el ámbito de la Formación, incrementando el número de cursos, horas de impartición y alumnos asistentes. Seguimos creciendo en el número de cursos a demanda de empresas y todo ellos con una buena valoración por parte de los asistentes a los mismos.

En cuanto a los Proyectos, resaltamos la continuidad de Técnicos para Chile, habiendo impartido varios cursos para alumnos y otro para docentes en colaboración con Tknika. Además hemos gestionado la primera edición en Euskadi del proyecto Capacitación Sin Fronteras con alumnos de Guanajuato (México).

Hemos trabajado también en el proyecto GIGET (dentro del programa Etorkizuna Eraikiz de la DFG) y con CENIFER en el desarrollo de varias acciones formativas relacionadas con las EERR y la Eficiencia Energética.

Una novedad importante, fruto del trabajo iniciado el año anterior, es nuestra participación en dos proyectos europeos, uno como líderes y otro como socios en el que Usurbilgo Lanbide Eskola es el líder.

El número de personas contratadas a lo largo del año ha sido de 38, record de contratación en los años de existencia de Zubigune, dato que junto a los positivos resultados económicos, invita al optimismo.

Para terminar, tengo que agradecer el trabajo de las personas que hacen posible la organización y el buen funcionamiento de todas las actividades.





# 01

TREBAKUNTZAKO EKINTZAK  
Acciones Formativas

# IGOGAILUEN INSTALATZEA ETA MANTENTZEA


## Instalación y mantenimiento de ascensores

Lanbideren kudeaketa-gomendioaren barruan sartzen da prestakuntza-ekintza hau, eta Zubigune Fundazioak garatu du Usurbilgo GLHBI ikastetxearekin lankidetzen; Igogailuak eta igotzeko eta garraiatzeko beste ekipo finko batzuk instalatzea eta mantentzea IMAQ0110 2. Mailako Profesionaltasun-ziurtagiriaren ibilbideari dagokio.

Ikastaro horretan parte hartu zuten langabeek dagokion trebakuntza jaso zuten eraikin eta industrietan igogailuak eta pertsonak eta zamak jasotzeko eta garraiatzeko beste sistema finko batzuk instalatzeko, martxan jartzeko eta horien mantentze-lanetarako, ezarritako instalazio-prozesuen eta muntatze-planen arabera, eskatutako kalitatearekin, indarrean dagoen araudia betez eta segurtasun pertsonaleko eta ingurumen-segurtasuneko baldintzetan.

Esta formación, perteneciente a la encomienda de gestión de Lanbide y desarrollada por Zubigune Fundazioa en colaboración con el CIFP Usurbil LHII, se ajusta al itinerario del Certificado de Profesionalidad de Nivel 2: IMAQ0110 - Instalación y Mantenimiento de Ascensores y otros Equipos Fijos de Elevación y Transporte.

Las personas en desempleo que participaron en este curso, recibieron formación adecuada para realizar las operaciones de instalación, puesta en servicio y mantenimiento de ascensores y otros sistemas fijos de elevación y transporte de personas y cargas en edificios e industrias, de acuerdo con los procesos de instalación y planes de montaje establecidos, con la calidad requerida, cumpliendo con la normativa y reglamentación vigente y en condiciones de seguridad personal y medioambiental.





	Prestakuntza-moduluak Módulo formativo	Orduak Horas	Prestakuntza-atalak Unidades formativas			Orduak Horas
MF1194_3	Eraikinetako instalazioen energia-efizientziaren ebaluazioa. <i>Evaluación de la eficiencia energética de las instalaciones en edificios.</i>	300	UF2265	Energia-efizientzia eraikinetako berokuntzaren eta ur bero sanitarioaren instalazioetan.	<i>Eficiencia energética en las instalaciones de calefacción y ACS en los edificios.</i>	90
			UF2266	Energia-efizientzia eraikinetako klimatizazio-instalazioetan.	<i>Eficiencia energética en las instalaciones de climatización en los edificios.</i>	90
			UF2267	Energia-efizientzia barneko argien eta kanpoko argiztapenaren instalazioetan.	<i>Eficiencia energética en las instalaciones de iluminación interior y alumbrado exterior.</i>	60
			UF2268	Eraikinetako instalazioen mantentze-lanak eta hobekuntza.	<i>Mantenimiento y mejora de las instalaciones en los edificios.</i>	60
<b>Profesionaltasun-ziurtagiriaren iraupen totala / Duración Certificado de profesionalidad</b>						<b>300</b>

Hasiera/Amaiera: Urtarrila/Apirila  
Parte-hartziale kopurua: 13

Inicio/Fin: Enero/Abril  
Número de Participantes: 13

# FABRIKAZIO MEKANIKOKO OPERAZIO OSAGARRIAK

## Operaciones auxiliares de fabricación mecánica

ZubiGune Fundazioak, Usurbilgo GLHBI ikastetxearekin lankidetzen, Fabrikazio Mekanikoko Operazio Osagariak deritzon FMEE0108 1. Mailako Profesionaltasun-ziurtagiria eskaini zuen.

Helburua izan da prestakuntzarik izan gabe, langabezian dauden eta lanbide bat ikasteko interesa duten pertsonei prestakuntza egiaztagarria eskaintza eta, era horretan, lan-merkatuan aukera hobekin sartzeko aukera ematea.

Ikastaro horretan parte hartu zuten pertsonek trebakuntza egokia jaso zuten fabrikazioko oinarrizko operazioak maneatzeko, prozesu automatikoetarako eta fabrikatutako produktuak kontrolatzeko eta egiaztatzeko, bai eta muntaketa-operaziotarako ere, hala nola materialen eta makinariaren prestaketa, egituren muntaketa eta produktu mekanikoak egiaztatzeko eta kontrolatzeko operazioak.

ZubiGune Fundazioa en colaboración con el CIFP Usurbil LHII, impartieron el Certificado de Profesionalidad de nivel 1: FMEE0108 - Operaciones Auxiliares de Fabricación Mecánica.

*El objetivo es ofrecer formación acreditable a personas sin cualificación y en situación de desempleo, interesadas en aprender un oficio y proporcionarles así la posibilidad de incorporarse con mejores posibilidades al mercado laboral.*

*Las personas que participaron en este curso recibieron formación adecuada para el manejo de operaciones básicas de fabricación, procesos automáticos y control y verificación de productos fabricados, así como de operaciones de montaje, tales como, preparación de materiales y maquinaria, montaje de estructuras y operaciones de verificación y control de productos mecánicos.*




Prestakuntza-moduluak Módulo formativo		Orduak Horas	Prestakuntza-atalak Unidades formativas			Orduak Horas
MF0087_1	Fabrikazio-eragiketak. <i>Operaciones de fabricación.</i>	220	UF0441	Oinarrizko fabrikazio-prozesuetako makinak, erremintak eta materialak.	Máquinas, herramientas y materiales de procesos básicos de fabricación.	80
			UF0442	Fabrikazio mekanikoko oinarrizko eragiketak eta prozesu automatikoak.	Operaciones básicas y procesos automáticos de fabricación mecánica.	90
			UF0443	Fabrikatutako produktuen kontrola eta egiatzapena.	Control y verificación de productos fabricados.	50
MF0088_1	Muntaketa-eragiketak. <i>Operaciones de montaje.</i>	190	UF0444	Materialen eta makinien prestaketa, dokumentu teknikoen arabera.	Preparación de materiales y maquinaria según documentación técnica.	60
			UF0445	Multzo eta egitura finko edo desmontagarrien muntaketa.	Montaje de conjuntos y estructuras fijas o desmontables.	90
			UF0446	Produktu mekanikoak egiatzatzeko eta kontrolatzeko eragiketak.	Operaciones de verificación y control de productos mecánicos.	30
MP0095	Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarrien lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak. <i>Prácticas profesionales no laborales.</i>					40
<b>Profesionaltasun-ziurtagiriaren iraupen totala / Duración Certificado de profesionalidad</b>						<b>440</b>

Hasiera/Amaiera: Urtarrila/Apirila  
Parte-hartzale kopurua: 12

Inicio/Fin: Enero/Abril  
Número de Participantes: 12





# ZERBITZU ADMINISTRATIBO ETA OROKORRETAKO OPERAZIO OSAGARRIAK


## Operaciones auxiliares de servicios administrativos y generales

Prestakuntzako ekintza hau ere Lanbideren kudeaketa-gomendioaren barruan dago, eta Usurbilgo GLHBI ikastetxeak garatzen zuen ZubiGune Fundazioarekin lankidetzen; Zerbitzu Administratibo eta Orokoretako Operazio Osagariak deritzon ADGG0408 1. Mailako Profesionaltasun-zuirtagiriaren ibilbideari dagokio.

Parte hartu zuten langabeek prestakuntza egokia jaso zuten kanpoko eta barneko zeregin administratiboetan eta kudeaketako zereginetan beharrezkoak diren informazioa eta dokumentazioa banatzeko, erreproduzitzeo eta transmititzeko, bai eta, goragoko mailako teknikariek eskatuta, eraginkortasunez egiteko datuak eta agriak egiazatzeko oinarrizko tramiteak, ezarritako jarraibideen edo prozeduren arabera.

*Esta formación forma también parte de la encomienda de gestión de Lanbide y fue desarrollada por el CIFP Usurbil LHII, en colaboración con ZubiGune Fundazioa, ajustándose al itinerario del Certificado de Profesionalidad de nivel 1: ADGG0408 – Operaciones Auxiliares de Servicios Administrativos y Generales.*

*Las personas en desempleo que participaron en este curso recibieron formación adecuada para distribuir, reproducir y transmitir la información y documentación requeridas en las tareas administrativas y de gestión, internas y externas, así como realizar trámites elementales de verificación de datos y documentos a requerimiento de técnicos de nivel superior con eficacia, de acuerdo con instrucciones o procedimientos establecidos.*



Prestakuntza-moduluak Módulo formativo		Orduak Horas		Prestakuntza-atalak Unidades formativas			Orduak Horas	
MF0969_1	Técnicas administrativas básicas de oficina. <i>Técnicas administrativas básicas de oficina.</i>	150	UF0517	Organización empresarial y de recursos humanos.	Organización empresarial y de recursos humanos.		30	
			UF0518	Gestión auxiliar de la correspondencia y paquetería en la empresa.	Gestión auxiliar de la correspondencia paquetería en la empresa.		30	
			UF0519	Gestión auxiliar de documentación económico-administrativa y comercial.	Gestión auxiliar de documentación económico-administrativa y comercial.		90	
MF0970_1	Operaciones básicas de comunicación. <i>Operaciones básicas de comunicación.</i>	120	UF0520	Comunicación en las relaciones profesionales.	Comunicación en las relaciones profesionales.		50	
			UF0521	Comunicación oral y escrita en la empresa.	Comunicación oral y escrita en la empresa.		70	
MF0971_1	Reproducción y archivo. <i>Reproducción y archivo.</i>	120	UF0513	Gestión auxiliar de archivo en soporte convencional o informático.			60	
			UF0514	Gestión auxiliar de reproducción en soporte convencional o informático.			60	
MP0095	Fabrikazio mekanikoko eragiketa osagarrien lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak. <i>Prácticas profesionales no laborales.</i>						40	
Profesionaltasun-zuertagiriaren iraupen totala / Duración Certificado de profesionalidad							430	

Hasiera/Amaiera: Urtarrila/Maiatz  
Parte-hartzale kopurua: 11

Inicio/Fin: Enero/Mayo  
Número de Participantes: 11

# ETENGABEKO TREBAKUNTZA

## Formación continua

Aurreko orrialdeetan deskribatutako ikastaroez gain, Hobetuzen 2017ko deialdian Usurbilgo GLHBI ikastetxeari esleitutako beste ikastaro batzuk ere kudeatu ditu Zubigune Fundazioak, 2018ko ekainera arte garatu direnak, bai eta Lanbideren 2018ko deialdiari dagozkionak ere, azken horiek 2018ko azken seihiokoan garatu direnak.

Hezkuntza Sailaren Prest\_Gara programaren prestakuntza-jardueren eskaintzaren barruan garatutako ikastaroak ere sartzen dira; programa hori unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako irakasleen prestakuntzara dago bideratuta.

44 ikastaro eman dira aurten, 2.570 ordu guztira; 323 lagunek hartu dute parte ikastaro horietan.

Jarraian, aipatutako ikastaroei buruzko xehetasunak aurkezten dira.

### CATIA - MF0107-DOCUMENTACIÓN TÉCNICA PARA PRODUCTOS

Fabrikazio mekanikoko produktuetarako dokumentazio teknikoa ezagutzeo beharrezko gaitasun profesionalak eskuratzeari. Adquirir las competencias profesionales necesarias para conocer la documentación técnica para productos de fabricación mecánica.

### PROGRAMACIÓN BÁSICA SIEMENS CON TIA PORTAL

Kontrol automatikoko sistemetan erabiltzen diren instalazioak eta maneiagailuak analizatzea, eta sistema automatiko programagarrien kontrol-programak egitea.

Analizar las instalaciones y los manipuladores utilizados en los sistemas de control automático y elaborar los programas de control de los sistemas automáticos programables.

Además de los cursos descritos en las páginas anteriores, Zubigune Fundazioa ha realizado la gestión de otros cursos que se asignaron al CIPF Usurbil LHII en la convocatoria de Hobetuz de 2017, y que se han desarrollado hasta junio de 2018, y los que se han desarrollado en el último semestre de 2018, correspondientes a la convocatoria de Lanbide de 2018.

Se incluyen también los cursos desarrollados dentro de la oferta de actividades formativas del programa Prest\_Gara del Departamento de Educación, orientada a la formación del profesorado de la enseñanza no universitaria.

Este año se han impartido 44 cursos, con una duración total de 2.570 horas y en los que han participado 323 personas.

A continuación se presentan los detalles de los cursos mencionados.

### PROGRAMACIÓN CNC HEIDENHAIN + CAM GIBBS

Ikaslea makina edo sistema mekanizatuetan eta konformatzio mekanikoetan Zenbakizko Kontrol Informatizatua (CNC) programatzeko eta ikusatzeko gaitza. Capacitar al alumno para programar y supervisar el Control Numérico Computerizado - CNC, en máquinas o sistemas de mecanizado y conformado mecánico.

### SOLDADURA TUBOS PLÁSTICO Y COBRE

Soldadura-lanak ondo egitea, kobrezko, plastikozko eta altzairuzko hodietan soldadurak zehaztasunez eta segurtasunez egiteko teknika eta ekipo ezberdinak aztertzaz.

Realizar correctamente las labores de soldadura, estudiando las diferentes técnicas y equipos para realizar soldaduras con precisión y seguridad en tubos de cobre, plástico y acero.





#### CAM GIBBS BÁSICO FRESA

Fresatzaileak CNCrekkin, CAM-programazioko berariazko software bidez, programatzeko beharrezko ezagutzak eskuratzea.

Alcanzar los conocimientos necesarios para programar fresas con CNC, mediante software específico de programación de CAM.

#### NÓMINAS Y CONTRATOS

Administracioko, kudeaketako eta giza baliabideen kontroleko jardun-eremu ezberdinetan aplikatzeko den lan-, sindikatu- eta zerga-araudiaren oinarrizko legeria.

Legislación básica de aplicación de la normativa laboral, sindical y fiscal en los distintos ámbitos de actuación en la administración, gestión y control de los recursos humanos.

#### CONSTRUCCIÓN SOSTENIBLE Y EFICIENCIA ENERGÉTICA

Eraikinetan energia aurrezeari eta energia-eraginkortasuna lortzeari buruzko ezagutzak barneratzea, ikaslea eraikuntzaren mundura hurbilduz.

Adquirir los conocimientos sobre la eficiencia y ahorro energético en los edificios, acercando al alumno al ámbito de la construcción.

#### INTERPRETACIÓN DE PLANOS I: VISTAS / CORTES

Mekanizatuko den produktuari buruzko informazio teknikoa analizatzea, materiala, abiapuntuko dimensioak, mekanizazte-faseak, makinak eta beharrezko bitartekoak zehaztuz.

Analizar la información técnica relativa al producto que se va a mecanizar, determinando el material, dimensiones de partida, fases de mecanizado, máquinas y medios necesarios.

#### PROGRAMACIÓN AVANZADA SIEMENS CON TIA PORTAL

Kontrol automatikoko sistemek instalazioak analizatzea, sistemok osatzen dituzten elementuak identifikatz eta elementuen funtzia prozesu horiek osatzen dituzten gainerako elementuekin erlazionatzu.

Analizar las instalaciones de los sistemas de control automático, identificando los distintos elementos que los componen y relacionando su función con el resto de elementos que conforman estos procesos.

#### CAM GIBBS BÁSICO TORNO

Tornuak CNCrekkin programatzeko gaitasuna, CAM programazioko berariazko softwarearen bitartezi.

Capacidad de programar tornos con CNC, mediante software específico de programación de CAM.

#### ELECTRICIDAD BÁSICA

Oinarrizko instalazio elektrikoak osatzen dituzten zatiak eta elementuak identifikatzeko eta oinarrizko konponketak egiteko ezagutzak eskuratzea.

Adquirir los conocimientos para identificar las partes y elementos que configuran las instalaciones eléctricas elementales, así como realizar reparaciones básicas.

#### EXCEL AVANZADO

Microsoft Excel programaren aukerak eta funtzionalitatea ezagutzea, eta lan konplexuak garatzea, baliabide kopuru handia erabilita.

Conocer la potencia y funcionalidad de Microsoft Excel y desarrollar trabajos complejos usando una gran cantidad de recursos.

#### MANTENIMIENTO BÁSICO DE VIVIENDAS

Barneko ur- eta elektrizitate-instalazioei buruzko oinarrizko alderdiak lantza, bai eta haien funtzionamendua eta etxebizitzetan gertatzen diren matxura txikien konponketa ere.

Trabajar las cuestiones básicas sobre las instalaciones interiores de agua y electricidad, su funcionamiento y el arreglo de las pequeñas averías que se suelen producir en las viviendas.

#### DISEÑO INSTALACIONES TÉRMICAS 3D-REVIT

Instalazioak hiru dimentsiotan diseinatzea, Revit erabilita. Kalkulu-lana grafikoki osatzea, esku hartu beharreko espazioetan instalazioa hobeto ulertzeko eta bistaratzeko.

Diseñar las instalaciones en 3D utilizando Revit. Completar gráficamente el trabajo de cálculo para mejorar la comprensión y visualización de las instalaciones en los espacios a intervenir.

#### BIOMASA

Biomasa mota ezberdinak ezagutza eta instalazio bakoitzeko egokienak aukeratza, eta errekontza-prozesuak analizatza. Galdara batzen funtzionamendua ezagutza.

Conocer los diferentes tipos de biomasa y seleccionar los más adecuados para cada instalación y analizar los procesos de combustión. Conocer el funcionamiento de una caldera.

#### MONTAJE Y MANT. INSTALACIONES AIRE ACONDICIONADO

Gasek egoera ezberdinetan dituzten portaerak eta bero-ponpa baten ezaugarriak ezagutza, eta aire girotuko gailu simpleak muntatza eta martxan jartza.

Conocer el comportamiento de los gases en diferentes estados, las características de una bomba de calor y estar realizar el montaje y la puesta en marcha de aparatos sencillos de aire acondicionado.



#### HIDRÁULICA

Hidraulika proporcionalako oinarrizko ezagutzak ematea, Hidraulika Proporcionalaren osagaien portaera ulertzeko eta dituen oinarrizko aplikazioak ezagutzeko.

Proporcionar conocimientos básicos de hidráulica proporcional que permitan entender el comportamiento de los componentes de la Hidráulica Proporcional así como sus aplicaciones más básicas.

#### PÉRDIDAS POR VENTILACIÓN Y ESTANQUEIDAD EN EDIFICIOS

Eraginkortasunaren datozen estandarretan, Eskari Globalaren barruan, aireztapenagatiko eta infiltrazioengatik galerek duten garrantzia analizatzea.

Analizar la gran importancia que tienen las pérdidas por ventilación e infiltración dentro de la Demanda Global del edificio en los próximos estándares de Eficiencia.

#### TERMOGRAFÍA

Termografiaren oinarrizko printzipioak, aplikazio nagusiak eta kameraren funtzionamendua eta softwarearen erabilera ikastea. Aprender los principios básicos de la termografía y sus principales aplicaciones así como el funcionamiento de la cámara y el uso del software.

#### METROLOGÍA

Lehengaia piezaren dokumentazio teknikoan, planoan eta prozesu-orrian eskatzen diren baldintza fisikoak eta dimensio-baldintzak betetzen dituen identifikatzea. Egiaztapenerako gailuak eta erabilera-teknikak.

Identificar si la materia prima reúne las condiciones físicas y dimensionales requeridas en la documentación técnica de la pieza, plano y hoja de proceso. Aparatos de verificación y técnicas de uso.

#### INTERPRETACION DE PLANOS II

Marrazkiak fabrikazio-prozesuaren arabera mugatzea, elementuen formak eta dimensioak deskribatzea eta gainazal-tolerantziak, dimensio-tolerantziak eta tolerantzia geometrikoak aztertzea.

Acotar los dibujos en función del proceso de fabricación, describir las formas y dimensiones de los elementos y estudiar tolerancias superficiales, tolerancias dimensionales y tolerancias geométricas.

#### CO2 REFRIGERANTE DEL FUTURO

CO2 instalazioei zerbitzua emateko teknikariak prestatzea, nahitaez bete beharreko Europa mailako (F-Gas 517/2014) eta Estatuko (115/2017 Errege Dekretua) ingurumen-araudiak direla eta.

Preparar a los técnicos para dar servicio a instalaciones de CO2 debido a las normativas medioambientales europeas (F-Gas 517/2014) y estatales (RD 115/2017), que son de obligado cumplimiento.

#### GOOGLE SITES

Hainbat aplikazio aprobetxatzea: Google Search, Google akademikoa, Google Books, Google Gmail, Google Calendar, Google Drive, Google Docs, Kalkulu-orriak, Formularioak eta Arkezpenak.

Aprovechar diferentes aplicaciones: Google Search, Google académico, Google Books, Google Gmail, Google Calendar, Google Drive, Google Docs, Hojas de Cálculo, Formularios y Presentaciones.

#### FANUC-COMPROBACIÓN Y OPTIMIZACIÓN DEL PROGRAMA CNC PARA EL MECANIZADO POR ARANQUE DE VIRUTA (UF0882)

Lehenengo piezen CNC mekanizatua, planoaren zehaztapenak egiazatzuz eta, halakorik bada, antzemandako akatsak zuzenduz. Lortutako emaitza mekanizatu beharreko piezaren planoarekin alderatzea.

Mecanizado CNC de primeras piezas, comprobando las especificaciones del plano y corrigiendo, en su caso, los errores detectados. Comparar el resultado obtenido, con el plano de la pieza a mecanizar.

#### PRL ELECTRICIDAD

Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko araudia identifikatzea, eta kalteen aurrean jarduteko neurriak ezagutzea, kalteok murritzeko, minimizatzeko edo ezabatzeko. Norbera babesteko ekipamenduen (NBE) erabilera eta ezarpena.

Identificar la normativa básica que regula la materia de la seguridad y salud laboral y conocer las medidas de actuación frente a los daños para reducirlos, minimizarlos o eliminarlos. Conocer las medidas de utilización e implementación de EPIs.

#### BOMBA DE CALOR

Bero-ponparen funtzionamendua –merkatuko klimatizazio-sistema eraginkor eta garbienetako den aldetik–, eta instalazio egoki bat egiteko dauden aukerak.

Funcionamiento de una bomba de calor, como uno de los sistemas de climatización más eficiente y limpio del mercado, y las diferentes opciones para realizar una instalación adecuada.

#### CAM GIBBS AVANZADO FRESA

CNCdun fresatzeko makinak ordenagailuz programatzeko gai izatea, ordenagailuz lagundutako fabrikazioko (CAM) maila aurreratuko berariazko programazio-software bidez.

Adquirir la capacidad para programar desde el ordenador fresadoras con CNC, mediante software específico de programación de CAM, nivel avanzado.

#### INTERPRETACIÓN DE PLANOS III: CONJUNTOS

Multzo mekaniko batean desmontatzeak egiteko gai izatea, pieza bakoitzaren fabrikaziorako beharrezko tolerantziekin. Multzoaren funtzionalitatea ulertzea.

En un conjunto mecánico ser capaz de realizar un despiece, con las tolerancias necesarias para la fabricación de cada pieza. Entender la funcionalidad de dicho conjunto.

## ILUMINACIÓN EFICIENTE Y DIALUX

Merkatuan dauden argi-aukera ezberdinak eta argiztapenean aurrezko aukera ezberdinak ezagutzea, eta DIALUXekin argiztapen-kalkuluak egiteko gaituta egotea.

Conocer las distintas opciones de luminaria existentes en el mercado y las distintas opciones para ahorrar en iluminación y estar capacitado para realizar cálculos de iluminación con DIALUX.

## MEDICIÓN TRIDIMENSIONAL COSMOS

Zenbakizko kontroleko hiru dimentsiotako makina baten erabilera oinarrizko ikaskuntza, neurketa geometrikorako eta piezak neurtzeko programen programaziorako eta erabilera.

Aprendizaje básico de la utilización de una máquina tridimensional de control numérico para medición geométrica, programación y ejecución de programas de medición de piezas.

## FOTOVOLTAICA

Eguzki-instalazio Fotovoltaikoaren parametroak eta ezaugarriak identifikatzea eta eraikinen ingurunean instalazio txikiak konfiguratzeara, irtenbiderik egokiena emanet.

Identificar los parámetros y características más relevantes de las instalaciones de Energía Solar Fotovoltaica y configurar pequeñas instalaciones en el entorno de los edificios adoptando, en cada caso, la solución más adecuada.

## CENTRAL FRIGORÍFICA

Hoztareen sektorearen alorrean hastea, parte-hartzaleek beren lan-merkatua handitu dezaten.

Iniciarse en el ámbito del sector de la refrigeración para que los participantes puedan ampliar su mercado laboral.

## AUTOCAD 2D

AutoCAD 2D programa ezagutzen hastea, autonomiaz jarduteko nahiko abildade eskuratu.

Familiarizarse con el programa AutoCAD 2D, adquiriendo destrezas suficientes para funcionar con autonomía.

## CATIA NIVEL 1 (MECHANICAL DESIGN)

Fabrikazio mekanikoko produktuen marrazkiak egitea bi eta hiru dimentsiotan, ordenagailuz lagundutako marrazketa-programa batekin.

Realizar dibujos de productos de fabricación mecánica en dos y tres dimensiones con un programa de dibujo asistido por ordenador.

## EQUIPOS DIRECTIVOS: PERSONAS COMPROMETIDAS EN LOS CENTROS DE ENSEÑANZA

Ikastetxearekin konprometitutako zuzendaritzako lantalueen garrantzia sustatzea.

Fomentar la importancia de un equipo de dirección comprometido con el centro.

## MICROCOGENERACIÓN

Mikro kogenerazioko ekipoen diseinu-printzipioak eta teknologiarik erabilienak erakustea, benetako instalazioetan oinarrituta.

Mostrar los principios de diseño de los equipos de microcogeneración así como las tecnologías más empleadas, basándose en instalaciones reales.

## CAM GIBBS AVANZADO TORNO

CNCdun tornuak ordenagailuz programatzeko gai izatea, ordenagailuz lagundutako fabrikazio (CAM) maila aurreratuko berariazko programazio-software bidez.

Dotar de la capacidad de programar desde el ordenador tornos con CNC, mediante software específico de programación de CAM, nivel avanzado.

## SOLAR TÉRMICA

Eguzki-instalazio termiko baten funtzionamenduari, eguzki-kolektoreei, horien funtzionamenduari, eta elementuak muntatzeko eta dimentsionatzeko kontuan hartu beharreko alderdiei buruzko oinarrizko ezagutzak eskuratzea.

Adquirir conocimientos básicos sobre el funcionamiento de una instalación solar térmica, los colectores solares, su funcionamiento, consideraciones de montaje y dimensionado de elementos.

## MINIEÓLICA

Instalazio minieolikoen parametro eta ezaugarri garrantzitsuenak identifikatzea. Instalazio txikiak konfiguratzeara eta horiek muntatzeko beharreko eragiketak egitea.

Identificar los parámetros y características más relevantes de las instalaciones mini-eólicas. Configurar pequeñas instalaciones y realizar las operaciones necesarias para el montaje de pequeñas instalaciones.

## PROGRAMACIÓN BÁSICA SIEMENS CON TIA PORTAL

Kontrol automatikoko sistemetan erabiltzen diren instalazioak eta maneiagailuak analizatzeko, eta sistema automatikoa programagarrien kontrol-programak egiteko gaitasuna eskuratzea.

Adquirir la capacidad de analizar las instalaciones y los manipuladores utilizados en los sistemas de control automático, y de elaborar los programas de control de los sistemas automáticos programables.

## FOMENTAR EL PENSAMIENTO CREATIVO

Ezarritakoap apurtzen ikastea, berritzeko, parte-hartzaleak beren confort-eremutik irtetera behartuz.

Aprender a romper con lo establecido para innovar, obligando a los participantes a salir de su zona de confort.



# ESKARIAREN ARABERAKO IKASTAROAK

## Cursos a demanda

2018ko ekitaldian, eskaerak egin zituzten enpresen beharren neurriaren antolatutako bederatzi ikastaro egin dira.

Ikastaro horiek 196 ordu izan dituzte guztira, eta 49 lagunek hartu du parte.

En este ejercicio se han realizado nueve cursos a medida de las necesidades de las empresas que los solicitaron.

Estos cursos han supuesto un total de 196 horas y han participado 49 personas.



### FACTURACIÓN MEDIANTE FACTUSOL

Empresa / Empresa: **Eusko Jela, S.L.**

Iraupena / Duración: 12 ordu / horas

Ikasleak / Alumnos: 1

Deskribapena: Fakturazioko kontzeptu nagusiak lantzea eta Facturaplus programa erabiltzen ikastea. Ikastaroa amaitzera, ikaslea gai da enpresak sortzeko eta eratzeko, salmentak kudeatzeko eta administratzeko eta fakturazio-prozesua egin eta dagozkion txostenak prestatzen.

Descripción: Trabajar los conceptos principales de facturación y aprender el manejo del programa Facturaplus. Al finalizar el curso, el alumno es capaz de crear y configurar empresas, gestionar y administrar las ventas y realizar el proceso de facturación y emitir los correspondientes informes.

### CAMGIBBS CNC

Empresa / Empresa: **Talleres Gaberri, S.L.**

Iraupena / Duración: 10 ordu / horas

Ikasleak / Alumnos: 1

Deskribapena: CNC mekanizazio-zentroak eta fresatzeko makinak ordenagailuz programatzea, ordenagailuz lagundutako fabrikazio (CAM) maila aurreratuko berariazko programazio-software bidez.

Descripción: Programación desde el ordenador de centros de mecanizado y fresadoras con CNC, mediante software específico de programación CAM, a nivel avanzado.

### OPERADOR INDUSTRIAL DE CALDERAS ITC-EP1

Empresa / Empresa: **Michelin – Fábrica de Lasarte-Oria**

Iraupena / Duración: 52 ordu / horas      Ikasleak / Alumnos: 4

Deskribapena: Industria-galdaren Operadore egiaztatutako txartel ofiziala eskuratzeko ikastaroa. Edukia bat dator Presioko Ekipoen Erregelamendua eta dagozkien Jarraihibide Tekniko Osagarrirak onesten dituen abenduaren 12ko 2060/2008 Errege Dekretuaren ITC EP1en II. Eranskinan deskribatutakoarekin; galdaren industria-operadoreek egiaztatu beharreko ezagupenei buruzkoa da eranskin hori.

Descripción: Curso para la obtención del carnet oficial acreditado de Operador de Calderas Industriales. El contenido se corresponde con el descrito en el Anexo II de la ITC EP1 del R.D. 2060/2008 de 12 de diciembre por el que se aprueba el Reglamento de Equipos a Presión y sus Instrucciones Técnicas Complementarias, referente a los conocimientos que deben acreditar los operadores industriales de calderas.



## METROLOGÍA INDUSTRIAL

Empresa / Empresa: **Fagor Automation Usurbil**

Iraupena / Duración: 11 ordu / horas Ikasleak / Alumnos: 7

Deskribapena: Empresa batean fabrikatutako produktuen kalitate-sistemen zati garrantzitsua izanik, metrologiarako beharrezko da neurketa-prozesuak egiteko eta kalibratze-pautak interpretatzeko eta definitzeko gai izango diren teknikariak izatea.

*Descripción:* La metrología, como parte fundamental de los sistemas de calidad de los productos fabricados en una empresa, exige disponer de técnicos capaces de realizar diversos procesos de medición e interpretar y definir pautas de calibración.

## METROLOGÍA INDUSTRIAL

Empresa / Empresa: **Fagor Automation Arrasate**

Iraupena / Duración: 11 ordu / horas Ikasleak / Alumnos: 12

Deskribapena: Empresa batean fabrikatutako produktuen kalitate-sistemen zati garrantzitsua izanik, metrologiarako beharrezko da neurketa-prozesuak egiteko eta kalibratze-pautak interpretatzeko eta definitzeko gai izango diren teknikariak izatea.

*Descripción:* La metrología, como parte fundamental de los sistemas de calidad de los productos fabricados en una empresa, exige disponer de técnicos capaces de realizar diversos procesos de medición e interpretar y definir pautas de calibración.

## FUNDICIÓN EN MODELO IMPRESO EN 3D Y DISEÑADO MEDIANTE CATIA

Empresa / Empresa: **Cursos Verano FP Euskadi II - TKNIKA**

Iraupena / Duración: 30 ordu / horas Ikasleak / Alumnos: 6

Deskribapena: 3D Inprimaketa bidez eskuraturako Modeloen Fundizioari buruzko ikastaroak elementuon diseinu- eta fabrikazio-printzipioak hartzen ditu, non partaideek beren abildadeak garatzen eta fabrikazio gehigarriaren oinarritzko teoria barneratzen duten.

*Descripción:* El curso de Fundición desde Modelos obtenidos en Impresión 3D, cubre los principios de diseño y fabricación de dichos elementos en el que los participantes desarrollan sus habilidades y asimilan la teoría básica de la fabricación aditiva.

## AUTOCAD 2D

Empresa / Empresa: **MSI Grupo-Mondragón Sistemas de Información**

Iraupena / Duración: 8 ordu / horas Ikasleak / Alumnos: 12

Deskribapena: Autocad 2D programari buruzko hastapeneko ikastaroa da, ordenagailuz lagundutako diseinu-programa hori erabiltzeko beharrezko ezagutzak eskaintzen dituena.

*Descripción:* Es un curso de introducción a Autocad 2D que proporciona los conocimientos necesarios para el manejo de este programa de diseño asistido por ordenador.

## OPERADOR INDUSTRIAL DE CALDERAS ITC-EP1

Empresa / Empresa: Hainbat empresa / Curso multiempresa

Gureak: 1 alumno · **Conservas Zizzo Hnos:** 1 alumno

**Nortindal Seas Products:** 1 alumno · **Papresa:** 1 alumno

Iraupena / Duración: 52 ordu / horas

Deskribapena: Industria-galdaren Operatzalea ejiaztatutako txartel ofiziala eskuratzeko ikastaroa. Edukia bat dator Presioko Ekipoen Erregelamendua eta dagozkien Jarraihibide Tekniko Osagarriak onesten dituen abenduaren 12ko 2060/2008 Errege Dekretuaren ITC EP1en II. Eranskinean deskribatutakoarekin; galdaren industria-operadoreek ejiaztu beharreko ezagupenei buruzkoa da eranskin hori.

*Descripción:* Curso para la obtención del carné oficial acreditado de Operador de Calderas Industriales. El contenido se corresponde con el descrito en el Anexo II de la ITC EP1 del R.D. 2060/2008 de 12 de diciembre por el que se aprueba el Reglamento de Equipos a Presión y sus Instrucciones Técnicas Complementarias.

## FUNDAMENTOS PARA SER UN BUEN ENCARGADO

Empresa / Empresa: **Sakana, S.Coop.**

Iraupena / Duración: 12 ordu / horas Ikasleak / Alumnos: 2

Deskribapena: Arduradun posturako aurkezten direnez, empresas erantzukizun handiagoa hartzent duten pertsonentzako, lanpostu berriari egokitutako gaitasunak eta ikuspegi egokia eskura ditzaten.

*Descripción:* Para personas que adquieren una mayor responsabilidad en su empresa ya que se promocionan al puesto de encargado y desean adquirir las competencias y la visión adecuada a su nuevo puesto.



02

PROIEKTUAK  
Proyectos



# TXILERAKO TEKNIKOAK

## Técnicos para Chile

ZubiGune Fundazioak, Usurbilgo GLHBI ikastetxearekin eta Tknikarekin lankidetzen, Txilerako Teknikariak programan parte hartu du aurten ere.

Txilerako Teknikariak programaren helburua da, atzerrian garatutako perfekziona mendi-beken bitartez, Goi mailako Teknikari Profesionalak eta Erdi mailako Heziketa Tekniko eta Profesionaleko Prestatzaileak prestatzea.

Proiektu hori Txileko Hezkuntza Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren arteko Nazioarteko Akordioan sartzen da.

Hiru ikasketa-programa egin dira aurten, Energia Berriztagarriekin, Energia-eraginkortasunarekin eta Trebakuntza eta Hezkuntzarekin lotutakoak.

ZubiGune Fundazioa, en colaboración con el CIFP Usurbil LHII y Tknika, ha participado un año más en el programa Técnicos para Chile.

Técnicos para Chile tiene como objetivo formar a Técnicos Profesionales de Nivel Superior y a Formadores de Educación Media Técnico Profesional mediante becas de perfeccionamiento desarrolladas en el extranjero.

Este proyecto forma parte del Acuerdo Internacional entre el Ministerio de Educación de Chile y la Viceconsejería de Formación Profesional del Gobierno Vasco.

Este año se han desarrollado tres programas de estudio relacionados con las Energías Renovables, la Eficiencia Energética y la Formación y la Educación.



## Eguzki-instalazio fotovoltaikoen antolaketa eta proiektuak

Profesionaltasun Ziurtagiri horri esker, eguzki-instalazio fotovoltaiko isolatuen zein sarera konektatutakoien instalazioak sustatzeko, proiektuak garatzeko eta muntaketa- eta mantentze-lanak kudeatzeko gaitasunak eskuratzen dituzte partaideek, kasuan kasuan behar diren teknikak eta prozedurak aplikatuz, baliabideak optimizatuz, beharreko kalitatearekin, indarrean dagoen erregelamendua betez eta segurtasun-baldintzetan.

## Organización y Proyectos de Instalaciones Solares Fotovoltaicas

*La realización de este Certificado de Profesionalidad permite a los participantes promocionar instalaciones, desarrollar proyectos y gestionar el montaje y mantenimiento de instalaciones solares fotovoltaicas aisladas y conectadas a red, aplicando las técnicas y procedimientos requeridos en cada caso, optimizando los recursos, con la calidad requerida, cumpliendo la reglamentación vigente y en condiciones de seguridad.*

	Prestakuntza-moduluak Módulo formativo	Orduak Horas		Prestakuntza-atalak Unidades formativas		Orduak Horas
MF0842_3	Eguzki-instalazioen bideragarritasunari buruzko azterlanak. <i>Estudios de viabilidad de instalaciones solares.</i>	120	UF0212	Eguzki-potenziala zehaztea.	Determinación del potencial solar.	40
			UF0213	Energia-premiak eta eguzki-instalazioen proposamenak.	Necesidades energéticas y propuestas de instalaciones solares.	80
